



**GOBERNU
KORPORATIBOAREN
POLITIKA OROKORRA**

2021

2021

Mutualiako Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorra

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.-ko mutua

Jakinarazpenetarako egoitza operatiboa:

Henao kalea 26
48009 Bilbo
Telefona: 944 25 25 00

www.mutualia.eus

2. Berriskuketa

Zuzendaritza Batzordeak 2021eko uztailaren 6an onetsitako dokumentua



Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Xedea	4
3. Aplikatzeko esparrua	4
4. Printzipio orokorrak eta ekintza.....	4
5. Gobernatzeko eta Parte-hartze organoak.....	8
1.- Batzar Orokorra.....	8
2.- Zuzendaritza Batzordea eta horko batzordeak.....	9
2.1.- Zuzendaritza Batzordea	9
2.1.1.- Kideen betebeharrak eta egitekoak	10
2.1.2.- Bilerak.....	11
2.1.3.- Karguak	12
2.2.- Zuzendaritza Batzordeko batzordeak	13
2.3.- Bileretara bertaratzeagatik jasotako konpentsazioak.....	13
2.4.- Kontrapisu-sistemak.....	13
3.- Zuzendari kudeatzailea	14
4.- Kontrol eta Jarraipen Batzordea	15
5.- Prestazio Berezieta Batzordea	15
6. Garatzea	16
7. Hedatzea	16
8. Gainerako politikekin koordinatzea.....	16
9. Kontrola.....	16

1.- Sarrena

Zuzendaritza Batzordeak eskumena du Mutuak hobeto funtzionatzeko behar diren xedapen guztiak hartzeko (Estatutueta 23.i) artikulua); besteak beste, Gobernu Korporatiboaren Sistema (aurrerantzean, Gobernantza) era iraunkorrean onetsi, ebaluatu eta berrikustea, eta, bereziki, politika korporatiboak onestea. Politika korporatiboen baitan jasota daude Mutualiak jarduerak garatzean duen jarduera arautzeko jarraibideak

Erantzukizun horiek gauzatzean, eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten Mutualitateei aplikatu beharreko araudiaren esparruan, Mutualiako Estatutuen, Proposamenaren eta Balioen esparruan, Zuzendaritza Batzordeak gobernu korporatiboaren Politika orokor hau onetsi du ("Politika").

2.- Xedea

Politika horren helburua da Mutualiako gobernu korporatiboaren estrategia eta konpromiso orokorrak ezartzea, oinarritzat hartuta haren balioak aplikatzea eta Mutualiari egokitutako aitortza orokorreko gobernu egokiko gomendioak betetzea.

Mutualiak nahiko luke gobernatzeko eta parte hartzeko organoek, gobernu korporatiboaren Politika orokor honetan ezarritakoa errespetatzea eta betetzea, bai dagozkien eskumenak, eginkizunak eta erantzukizunak garatzean, bai eta interes-taldeekiko tratuan eta harremanetan ere.

3.- Aplikatzeko esparrua

Politika hori Mutualiako gobernu eta parte-hartze organo guztiei aplikatuko zaie.

4.- Printzipio Orokarrak eta ekintza

Mutualiako gobernatzeko eta parte hartzeko organoek koherentzia bermatu behar dute interes-taldeekin dituzten harremanetan, eta jarraitzeko eredia izan behar dute zehaztutako balioen adibideari eta pertsonifikazioari dagokienez. Horretarako, printzipio hauek definitu dira, zorrotasun-asmorik gabe:

Hurbiltasunari dagokionez:



- Tratu berdina bermatzea elkartutako enpresa guztiei eta babestutako eta atxikitako langileei, haien estatusa edozein dela ere, haien guztien interesa eta arreta funtsezko ardatz gisa hartuta.
- Informazioa zabaltzea, denentzat eskuragarri, egoki eta formatu nahiz lengoaia errazean, baldintza fisiko, psikiko eta sozial guztietara egokituta, mezua ulergarria izan dadin, eta emandako mezua ulertu dela egiaztatzea.
- Antolatutako ekitaldi guztietan irisgarritasun fisikoa ahalbidetzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea, ahal den neurrian haietarako garraioa erraztuz.
- Erakunde eta pertsona mutualistekiko komunikazioa erraztea, haien ama-hizkuntzan edo komunikazio-hizkuntzan, zerbitzuak ematen dituzten lurraldeetako hizkuntza ofizialen erabilera lehenetsiz.

Eraginkortasunari dagokionez:



- Gizarte osoak ordaintzen dituen ondasun publikoak bidegabe erabiltzea dakarten jardunbide iruzurtiak baztertzea eta ez aplikatzea.
- Mutuaren eta/edo Gizarte Segurantzaren interes publikoa edo ondarea arriskuan jar dezakeen ekintza oro saihestea.
- Ingurumenaren aldeko konpromiso irmoa agertaraztea, eta jarduera guztiak garapen jasangarri egiazkoa lortzera bideratzea.

Taldeari dagokionez:



- **Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateekin elkarrekin kudeatzeko metodoak lehenestea, erakundeen arteko erantzunkidetasunaren bide eta adierazpen gisa.**

Profesionaltasunari dagokionez:



- **Isilpean gordetzea isilpekotzat adierazita dauden egitateak eta lortutako informazioa, bai eta horiekiko erabakiak ere, eta xede dituen helburuetarako erabiltzea.**
- **Indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkien eginkizunak betetzea, eman zitzaizkienean zuten helburu eskusiboarekin, eta behar bezalako arduraz jokatzeari norbere eginkizunak betetzean.**
- **Interes-taldeekin harreman egokiak ezartzeko eta gainerako eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkoak diren gaitasunetan eta ezagutzetan aurrera egitea.**
- **Inpartzialtasun printzipioa errespetatzea, irizpide independenteari eusteko moduan.**

Gardentasunari dagokionez:



- **Enpresa elkartuei eta langile babestu eta atxikiei ez ezik, gizarte osoari ere informazioa ematea, egiazkoa, egokia, arrazoizkoa eta gardena, beren politika eta jarduerari buruz.**
- **Agintariekiko, Erakunde Arauemaileekiko eta Administrazioarekiko harremanak legezotasun, lankidetzaren eta gardentasun printzipioen arabera planteatzea.**
- **Interes-gatazkako egoerak aldeztu aurretik saihestea, eginkizunekin bateraezina diren egoera, jardura edo interesetan ez inplikatu eta norbere objektibotasunari eragin diezaiokkeen auziren bat dagoen gaietan ez esku hartzea.**

- Gizartera bideratutako ekintza guztietan, zuzentasun eta justizia printzipioak bultzatzea, gizartearen onura bilatuz, batez ere egoera ahulenean dauden kolektiboena.
- Komunikazio-estrategia egiazkoak eta eskuragarriak garatzea, gizarteari argi eta garbi azalduz bere jardueraren izaera, gauzatzen dituen zeregin zehatzak, bere eskumen-esparrua eta hori izatearen zentzua eta ekarpen soziala.
- Edozein jarduera irregularren berri ematea orga no eskudunei, barrukoei zein kanpokoei, baldin eta horien berri badute.
- Gizarteari Mutua zer den behar bezala jakinaraztea eta informatzea.


Abangoardismoari dagokionez:



- Baliabide teknologiko berritzaileenez hornitzea, enpresa elkartuekiko, babestutako eta atxikitako langileekiko eta edozein organismo, entitate eta, oro har, gizartearekiko harremanetarako eta komunikaziorako.
- Komunikaziorako eta informazio-trukerako sistema berritzaileak eta seguruak sustatzea, eginkizunak bizkortzeko eta errazteko.
- Gobernantza-sisteman etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa garatzea.



5.- Gobernatzeko eta Parte hartzeko organoak



GSLOk definituta, Gobernantza Sistema sortu, mantendu eta betetzen dela zaindu behar duten honako hauek dira gobernatzeko eta parte-hartze organoak:

1. Batzar Orokorra

Batzar Orokorra da Mutualiako elkartekide diren enpresaburuek parte hartzeko bide nagusia, eta parte hartze hori atxikitako langileen eta mutualitateko langileen ordezkaritzetara hedatzen da. Batzar Orokorrean informatuta eta arduraz parte har dezaten sustatzeko, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorraren Gida onetsi du, eta elkarteko enpresaburuen eskura jarri. Gida horretan, argi eta garbi azaltzen dira bertan parte hartzeko aplikatu beharreko prozedurak eta elkartekideen eskubideak gauzatzeko garapen-arauak, eta, zehazki, ordezkaritza eskuordetzeko eta boto-eskubidea gauzatzeko sistema.

Batzar Orokorreko deialdia hainbat iragarki motaren bidez egiten da, eta enpresaburu elkartekideen legezketasun, irismen, gardentasun eta parte hartze printzipioak koordinatzen saiatzen da. Baldin eta enpresaburu elkartekide horiek ikusmen-mugak badituzte, deialdiaren iragarkia braille sisteman bidaltzeko eska dezakete.

2. Zuzendaritza Batzordea eta horko batzordeak.

2.1 Zuzendaritza Batzordea.

Zuzendaritza Batzordeari dagozkio mutua administratzeko eta ordezkatzeko ahalmen eta gaitasun handienak.

Zuzendaritza Batzordearen jarduera-ardatza da politikak, erregelamenduak eta arauak onestea, Mutualiako plan eta helburu estrategikoak onestea eta gainbegiratzea, eta haren antolaketa-eredua definitzea.

Gainbegiratze-eginkizun hori betetzeko, Zuzendaritza Batzordeari lagundu egiten diote Batzorde Beteazleak eta beste Aholku-batzorde tekniko batzuek.

Zuzendaritza Batzordeak dagozkion eginkizunak garatzean, interes soziala bilatzen du eta irizpide-asmo eta -independentziarekin jarduten du, baldintza berdinetan dauden bazkide guztiei tratu berbera emanez.

Batzordea osatzeko garaian, kontuan hartzen da ordezkari-tza orekatuaren printzipioa, bai Zuzendaritza Batzordeko kide diren enpresa elkartuen (txikiak, ertainak edo handiak, langileen kopuruaren arabera), bai haien ordezkari diren gizonen eta emakumeen artekoa.

Antolatze- eta funtzionatzeko, Zuzendaritza Batzordea haren barne-erregelamenduak arautzen du, eta, besteak beste, honako alderdi hauek ezartzen dira:

- Zuzendaritza Batzordearen osaera eta kideak eta ordezkariak hautatzeko eta kargutik kentzeko arauak,
- karguak,
- interes-gatazkarik baldin badago, horietan jarduteko arauak,
- bilerak
- eta Batzordearen bileretara bertaratzeagatik jasotako konpentsazioak.

Egiaztatu egin behar da ez dagoela araudian ezarritako bateraezintasunik, debekurik eta eskumen- edo interes-gatazka auzirik, ez kideak ez haien ordezkariak hautatzerakoan, eta, halaber, egiaztatu behar da bi horiek hautatzeko prozeduretan ez dagoela inolako diskriminaziorik eragin dezakeen desberdintasun inpliziturik, eta, bereziki, Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkarien artean emakumeak hautatzea ez dela oztopatu.

Mutualiak Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzeko eta bertako karguak ordezteko planak ditu. Nahitaezkoa da kideen zati bat berritzea, eta karguena modu mailakatu eta ordenatuan egiten ahaleginduko da, aurreikusitako lanpostu hutsuneei aurrea hartuz

–hirurogeita hamar urteko ordezkarien ezarritako adinagatik, eta karguek nahiz kideek bete duten lekua uzteagatik –. Gainera, Zuzendaritza Batzordeak Presidentearen Ondorengotza-plan bat onetsi du; hori aplikatuko da kargua uzteko borondatea aldeztu aurretik jakinarazten duenean edo ustekabean unean unekoa ez den ezina baldin badu.

Zuzendaritza Batzordeko Presidente, Presidenteorde eta Idazkari karguek, baldin eta une jakin batean eginkizuna bete ezin badute, karguko eginkizunetan ordezkatuko dituen pertsona bat izango dute.

Baldin eta Zuzendaritza Batzordeko kideen ezagutzak eguneratzeko beharra badago, Mutuialiak berriazko informazio/prestakuntza ekintzak ezarriko ditu ordezkari horientzat, Gobernu Organo hori profesionalizatzeko, dibertsifikatzeko eta prestatzeko beharrari erantzun ahal izan dadin.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak webgune elektroniko bat dute euren esku, egin beharrekoak egitea eta informazio-eskubidea gauzatzea bideratzeko. Webgune elektroniko horretan, euren arteko bilerak eta Batzordeetakoak prestatzeko beharrezko informazioa ematen da, gai-zerrendaren arabera, bai eta egindako bileren aktak ere.

Zuzendaritza Batzordeak urtero ebaluatzen ditu bere funtzionamendua eta lanen kalitatea, bai eginkizunak nola betetzen dituen eta bai batzordeen funtzionamendua. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak lankide du Barne Auditoretzako Batzordea, eta eskura ditu Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiaren urteko auditoretza txostenak, kontuen kanpoko beste auditoretza batzuenak eta erakundean ezarritako kudeatze-sistemenak.

2.1.1 Zuzendaritza Batzordeko kideen betebeharrak eta egitekoak

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak GSEM Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak eta eginkizunak bete behar dituzte, honako hauek barne:

- Administrazio arduratsuaren betebeharra, hau da, Zuzendaritza Batzordearen eta batzordeen bilerak behar bezala prestatzeko eta haietarajateko betebeharra, eztabaidetan aktiboki parte hartuz, horien irizpideak erabakiak hartzen benetan lagun dezan.

Arduratzeko betebeharrak horren barruan sartzen da, halaber, Zuzendaritza Batzordeari Mutuaren kudeaketan izandako edozein irregulartasunen berri ematea, irregulartasun horien berri izan baldin badu, eta arrisku-egoera oro zaintzea.

- Isilpekotasun-betebeharra, Zuzendaritza Batzordeko kide baten ordezkari izateari utzi ondoren ere; hori dela eta, kargu horretan jardutean jaso duten informazioa ezingo dute ezagutarazi.
- Ez lehiatzeko betebeharra, karguan dagoen bitartean eta eginkizunak utzi osteko bi urteetan. Aldi horretan ezingo da izan Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkari, eta ezingo du beste GSEM batzuetan edo zentro mankomunatuetan lan egin. Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak mutuari jakinarazi beharko dizkio betetzen dituen lanpostu guztiak eta beste sozietate edo erakunde batzuetan egiten duen jarduera, orobat gainerako betebeharrak profesionalak eta bere lanbide-egoeran gertatzen den edozein aldaketa esanguratsu.

- Leialtasun-betebeharra, interes-gatazkako edozein egoeraren berri emateko betebeharra eta mutuari Zuzendaritza Batzordeko kide baten ordezkari gisa jarduteko garrantzitsua den edozein gertakari edo egoera ezagutarazteko betebeharra barne. Horren barruan sartzen da, era berean, bai bateraezintasun egoerarik ez eragitea, bai eta mutuei aplikatu beharreko araudian ezarritako debekurik ez izatea ere (isilpeko informazioa ezagutaraztekoa barne), baldin eta ondare-abantaila lortzeko eta karguaren aukerak aprobetxatzeko bada, norbere onurarako hari lotutako pertsonen edo ordezkatzan dituzten enpresen onurarako.

Azkenik, Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak haren esku utzi beharko dute kargua, baldin eta tartean hauetakoren bat bada: 70 urte betetzea, bateraezintasuna, egokitasunik eza, kargua betetzeko gerora sortutako debekua eta Gobernu Korporatiboaren Sistemari ezarritako gainerako kasuak.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak bete egin behar dituzte, halaber, Kode etikoan, Jokabide Debekatuen Katalogoan eta horiek barne hartzen dituzten beste edozein barne-arautan ezarrita dauden jokabide-arauak.

Horrez gain, Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak errespetatu egin beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeak bere burua antolatzeke dituen ahalmenen esparruan une bakoitzean onartzen dituen arauak, beren karguak hobeto bete ahal izateko.

Horietarako erabakitako betebeharrak ere ordezkatzan dituzten pertsona fisiko edo juridikoei eskatu ahal izango zaizkie.

2.1.2 Zuzendaritza Batzordeko bilerak

Bere egitekoak eraginkortasunez betetzeko, Zuzendaritza Batzarrak Estatutuetan eta Zuzendaritza Batzarraren Araudian aurreikusitako eran egingo ditu bilerak.



2.1.3 Zuzendaritza Batzordeko karguak

Presidenteak

Zuzendaritza Batzordeko Presidenteak Mutuaren eta gobernu-organoen ordezkaritza gauzatzen du eta haien sinadura darabil, eztabaidak zuzentzen ditu, Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu egokia zaintzen du eta kide guztiek bileretan eta eztabaidetan parte hartzea sustatzen du. Halaber, Batzar Orokorreko, Zuzendaritza Batzordeko eta Kontrol eta Jarraipen Batzordeko buru da, eta, hala badagokio, bere eskumenen eremuan sartzen diren gaiei buruzko erabaki-proposamenak egiten ditu.

Era berean, Zuzendaritza Batzordeari proposatzen dizkio, horrek onets ditzan, zuzendari kudeatzailea izendatzea, kargugabetzea eta haren ordainsariak, kontuan hartuta indarrean dagoen araudiak une bakoitzean gobernu-organo horrentzat ezartzen dituen ordainsari-mugak, erakundeko eginkizun betearazleak dituzten gainerako goi-kargudunen ordainsariak, Barne Auditoretzako zuzendaria izendatzea, kargugabetzea eta horren ordainsariak, eta horien guztien urteko helburuak.

1., 2. eta 3. Presidenteordeak

Presidenteorde bakoitzak Presidenteak ordeztuko du aldi baterako, dagokion hurrenkeraren arabera, eta haren ahalmen eta erantzukizun guztiak izango ditu kargua hutsik badago, beste nonbait, gaixorik edo ezinduta badago, bai eta aurreko hurrenkeran dauden Presidenteordeetako edozein ere, Batzar Orokorreko eta Zuzendaritza Batzordeko edozein batzordeetako presidentetzan barne, aldi batean botere-hutsunea izateko arriskua saihestuz.

Idazkaria

Zuzendaritza Batzordeko idazkariari dagokio Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorren jarduketan legezketasun formala eta materiala zaintzea, eta, besteak beste, bileren aktak eta Batzar Nagusiarenak idaztea. Era berean, Zuzendaritza Batzordeko batzordeetako idazkariak koordinatzen ditu Gobernu Korporatiboaren Sistemari eta araudia betetzeari buruzko guztian.

Idazkariordea

Idazkaria ordezkatzeko du aldi baterako, haren ahalmen eta erantzukizun guztiekin, kargua hutsik badago, beste nonbait bada, gaixorik edo ezinduta badago, Batzar Orokorreko idazkaritza barne.



Batzordekideak

3. presidenteordea eta idazkariordea ordezkaturiko dituzte, kargua beste nonbait badago, hutsik edo gaixorik badago, eta Zuzendaritza Batzordeak zehaztutako moduan. Halaber, Mutuaren erabakiak edo funtzionamendua betetzeari dagokionez Zuzendaritza Batzordeak agintzen dizkien zeregin bereziak beteko dituzte.

2.2.- Zuzendaritza Batzordeko batzordeak

Ordainsarien Batzordea eta Batzorde Etikoa. Batzorde horien osaera, eskumenak eta funtzionamendua Zuzendaritza Batzordeak berak onetsitako erregelamenduetan araututa daude.

Batzorde Betearazleak Zuzendaritza Batzordearen eskuordetzaz jarduten du, eta eginkizun berberak ditu, berariaz eskuordetu ezin direnak izan ezik, gehienez ere hamar kiderekin, nahiz eta Zuzendaritza Batzordeak bere erabakiak berretsi behar dituen.

Batzordeburuak Batzorde guztietan jorratutako gaien eta hartutako erabakien berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, batzordeen bilkuren ondoren egingo den lehenengo bileran berretsi ditzan.

2.3.- Bileretara bertaratzeagatik jasotako konpentsazioak.

Legezketasun, doakotasun, berdintasun, gardentasun eta bildutako Gizarte Segurantzako kuoten bolumenarekiko proportzionaltasun printzipioek arautzen dute konpentsazio hori erregulatzen duen politika; izan ere, GSLOk eta hura garatzeko arauak jasotzen dutenez, Zuzendaritza Batzordeko kide izatea doakoa izango da, edonola ere, kalterik eragin gabe Mutuak kalte-ordaina emateari eta bileretara joateagatik konpentsazioa emateari, eta, egokia baldin bada, baita presidente kargua betetzen duen pertsonari ere, betiere aplikatzekoak diren lege eta erregelamendu arauetan xedatuaren arabera.

Gobernu-organo horren bileretara joaten diren Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak eta batzordeetara joaten direnek soilik dute eskubidea Zuzendaritza Batzordeak urteroko lehen bilera erabakitako gastu-konpentsazioaren zenbatekoa jasotzeko, ministerio eskudunak pertsona bakoitzeko eta bilera bakoitzeko arauz ezarritako zenbatekoa gainditu gabe. Gehieneko zenbateko hori homogeneizatuta dago Sektoreko Mutua guztientzat, bakoitzak guztira lortutako kuota-tarteen arabera, eta bileretara joaten diren kideen ordezkari guztientzat berdin banakatuta.



2.4.- Kontrapisu-sistema

Gobernu Korporatiboaren Sistemak beharrezko neurriak aurreikusiko ditu ziurtatzeko ez dutela kontrapisu egokien mende ez dagoen erabakitzeko ahalmenik izango ez Zuzendaritza Batzordeko Presidenteak, ez Zuzendaritza Batzordeko Batzorde Betearazleak, ez Batzorde horretako beste batzordeetako batek, ez eta Presidente eta Zuzendaritza Batzordeko batzorde guztiak Zuzendaritza Batzordearen ikuskaritzapean daudela bermatzeko ere.

Horren harira, Zuzendaritza Batzordeak kide independente guztiak prestatzen ditu, bai eta batzorde aholku-emaile batzuk ere, betearazleak ez diren kideekin osatuak; izan ere, beharrezkoa da Zuzendaritza Batzordeak bere edozein batzorderen erabaki guztiak berrestea. Gainera, berariaz eskuordetu ezinak ez diren Zuzendaritza Batzordearen ahalmenak etengabe eskuordetzeko, aldeko botoa eman behar dute kideen bi herenek, gutxienez. Gehiengo hori bera beharko da Zuzendaritza Batzordeko Presidente eta Presidenteorde karguak izendatzeko.

Urtero, Zuzendaritza Batzordeko funtzionamenduaren ebaluazioaren barruan, kontrapisu-sistema hori benetan aplikatzen dela egiaztatzen da, eta Zuzendaritza Batzordearen Batzordeen erabaki guztiak Zuzendaritza Batzordeak berretsi dituen frogatuz.

3 Zuzendari kudeatzailea

Zuzendaritza Batzordeak dituen eskumenen artean, Zuzendari Kudeatzailea izendatzen du, izaera profesional eta teknikoko arrazoi zorrotzak aintzat hartuta. Zuzendari horrek gauzatzen ditu Mutuako Zuzendaritza Betearazlea eta helburu orokorrak garatzea. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen ahalmenak ematen dizkio, aldi baterakoak edo iraunkorrak; Mutuak hori aldatzea erabaki dezake.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak hautatzean bezala, zaindu egingo da ez lehian izatea honelakorik: Mutuei aplikatu beharreko araudian eta estatutuetan ezarritako bateraezintasunak, debeku eta eskumen edo interes gatazka auziak, diskriminazioa eragin dezaketen joera inplizituak, eta, batez ere, emakumeen hautaketa ez oztopatzea.



4 Kontrol eta Jarraipen Batzordea

Mutualiak garatzen duen Gizarte Segurantzarekiko lankidetzaren kudeaketa kontrolean eta jarraipenean gizarte-eragileen parte hartze instituzionaleko organo gisa, arautzat ditu legezkotasun, gardentasun eta berdintasun printzipioak, bai GSLO Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak bere eskumenak, osaera, funtzionamendua, bateraezintasunak eta kideei bileretara bertaratzearen truke konpentsazioa finkatzeagatik, bai Mutualitateko eta haren enpresa elkartekideetako pertsona babestuen eta atxikien ordezkartza paritarioagatik.

Kontrol eta Jarraipen Batzordeko kideak honako hauek izendatzen dituzte: ordezkartza handieneko sindikatuek eta enpresaburu elkarrekin, eta Mutualiaren jardura esparruko langile autonomoen elkarte profesionalen ordezkartza batek.

Karguak izendatu eta berritzean, kideen ordezkarien osieran Emakumeen eta Gizonen Presentzia Orekatuaren printzipioa gogorarazten da.

Zuzendaritza Batzordeko Presidente bera da Batzordeburua, eta bilkurak arruntak eta ezohikoak izan daitezke. Lehenengo bilkurak hiru hilean behin egin daitezke, eta bigarrenak, Presidenteak egokitzen jotzen duen guztietan, edo kideen heren batek eskatzen dituenean.

5 Prestazio Berezietako Batzordea

Mutualitateak ezarritako dituen Gizarte Laguntzako Erreserbako funtsen kontura aukerako gizarte-laguntzako prestazioak emateko organo eskuduna da, lan-istripu bat edo lanbide-gaixotasun bat izatearen ondorioz beharizan-egoeran dauden onuradunen aldekoa.

Aurreko Batzordea bezala, legezkotasunaren, gardentasunaren, berdintasunaren eta osieran presentzia orekatua izatearen printzipioak aintzat hartuz araututa dago, hango arrazoi berberengatik, baina, gainera, Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2019ko urriaren 28ko Ebazpenean prestazio publikoak aitortzeko ezarritako eskumenak direla eta, Prestazio Berezien Batzordeak aipatutako erreserbako funtsak kudeatzen ditu, kontuan hartuta honako printzipio hauek guztiak: urteko aurrekontuari eusteko printzipioak, hurrengo ekitaldiko baliabideak konprometitu gabe, efizientzia, eraginkortasuna eta bereziki, gizarte-laguntzak ematean sortzen diren premia-egoerei erantzuten diete, kasu bakoitzak eskatzen duen tratu eta irizpide bizkor berdinazalek, familia-unitate bakoitza gizarte-langile espezialistek banan-banan aztertuta.

Mutualitateari atxikitako enpresak dauden probintzietan ordezkartza handiena duten sindikatuek izendatzen dituzte Prestazio Berezien Batzordeko kideak, bai eta langile autonomoen lanbide-elkarrekin ordezkartza batek ere Mutualiaren jardura esparruan; enpresa elkartuen ordezkariak, berriz, Zuzendaritza Batzordeak izendatzen ditu. Kargu guztiak (Presidente, Presidenteordea edo Idazkaria), Presidente bera, Batzordeak berak aukeratzen ditu kideen artean, eta bi urtean behin berritzen dira.

Ohiko bilkurak hiru hilean behin egiten dira, eta ohiz kanpokoak Presidenteak egokitzen jotzen duen guztietan, edo kideen heren batek eskatzen duenean.

6.- Garatzea

Gobernu korporatiboaren politika orokor hori Zuzendaritza Batzordeak onesten du, Zuzendari Kudeatzaileak proposatuta, eta Batzar Orokorrak berresten du.

7.- Hedatzea

Politika hori behartutako subjektu guztien artean jakinarazi eta zabalduko da.

Interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza honako ordena honetan kontsultatu behar da: Zuzendari Kudeatzailea eta Zuzendaritza Batzordea.

8.- Mutualiako beste politika batzuekin koordinatzea

Mutualiako politika guztiak honen mende daude, eta ezin diote ezertan kontra egin hemen xedaturikoari. Gainera, beste politika batzuetan xedatu ez denerako, politika horretan ezarritakoa beteko da, eta politika horiek guztiak interpretatzeko ere balioko du.

9.- Kontrola

Bere erregelam enduaren arabera, Mutualiako Zuzendaritza Batzordearen Batzorde Etikoaren eskumenen artean dago Gobernu Korporatibo Onaren Politika eta Kode Etikoa proposatzea, gainbegiratzea eta aldian behin berrikustea, erakundearen arrisku moralei, dilema etikoei eta kultura etikoari dagokienez, eta Zuzendaritza Batzordearen Batzorde Betearazleari proposatzea, bere eskumeneko gaitan, horien aldaketetan eta eguneratzean.

Era berean, Mutualiak, politika honetan ezarritako printzipio orokorrak betetzearen jarraipena eta kontrola egiteko, haren interes-talde guztien eskura jarri du "komunikazio eta salaketa kanala", Betetze Korporatiboko Batzordeak kudeatuta. Organo hori ekimen- eta kontrol-botere autonomoak dituen organo elkargokidea da, barnekoa eta iraunkorra, arrisku penalen prebentzio-sistemaren funtzionamendua eta betetzea ikuskatzen du (Compliance Penal), eta dagozkion txostenak egiten dizkie ez-betetze horiei buruz, dagozkien erabakiak har ditzaten:

- Zuzendaritza Batzordeko Batzorde etikoari, Kode etikoko portaerak eta, beraz, politika honetan ezarritako printzipioak ez-betetzeekin lotutako alderdi guztiak.
- Zuzendari kudeatzaileari eta Zuzendaritza Batzordeari: Mutualiari zigorra egozteka ekar diezaioketen alderdiak edo ez-betetzeak.

Berrikuspenen taula	
Zuzendaritza Batzarraren 1. erabakia	2019-07-09
1. berrikuspena Zuzendaritza Batzarraren Batzar Orokorraren erabakia	2021-07-06



